

2021eko IRAILAREN 15eko OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2021-09-15.
Hasiera ordua: 19:30.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Julen Errandonea Martin
Estibaliz Pinacho Olaciregui
José Esteban Aguirre Zubieta
Maialen Chantre Irazoki

HERRIRAKO

José Antonio Oyarzabal Iribas
Raquel Quiroga Tapia
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre
ATXIKI GABEKO ZINEGOTZIA
Josu Iratzoki Agirre

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:

M. Aranzazu Zubieta Ochoteco
Germán Castillo Lazcanotegui

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel José Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2021/07/28). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

2. OIHAN ENKANTEA NAFARROAKO ONURA PUBLIKOKO MENDIEN KATALOGOKO 638 ETA 639 ZENBAKIKO MENDI KOMUNALETAN, "ARRANOKO HARRIA", "IASOLA", "ASKAERREKA" ETA BESTE PARAJE BATZUK. BEHIN BETIKO ESLEIPENA.

Ikusirik:

- Nafarroako Onura Publikoko Mendiaren Katalogoko 638 eta 639 zenbakietako mendietan 3 oihan-aprobetxamendu hauek egiteko espedienteak:

* 1. LOTEA.

- Parajeak: Arranoko Harria, Uslaka.
- Espeziea: P.nigra (Larizio).
- Ondoak: 9.588.
- Zuraren bolumena: 0 m3.
- Egur txiki/peia bolumena: 1.984,14 m3.
- Bolumena, guztira: 1.984,14 m3.
- Balorazioa, 11.904,86 €.

* 2. LOTEA.

- Parajeak: Iasola, Lizarnabarra, Miaia.
- Espeziea: Larix kaempferii (Alertze).
- Ondoak: 287.
- Zuraren bolumena: 187,50 m3.
- Egur txiki/peia bolumena: 80,36 m3.
- Bolumena, guztira: 267,85 m3.
- Balorazioa, 4.392,80 €.

* 3. LOTEA.

- Parajeak: Askaerreka, Ibardin, Sarralla, Uslaka.
- Espeziea: Quercus rubra (Haritz amerikarra).
- Ondoak: 1.959.
- Zuraren bolumena: 604,87 m3.
- Egur txiki/peia bolumena: 780,72 m3.
- Bolumena, guztira: 1.385,59 m3.
- Balorazioa, 28.325,56 €.

- Udalak, 2021eko ekainaren 16ko Osoko Bilkuran, erabaki zuela basoko 3 loteen aprobetxamendua enkante publiko bidez saltzea, gutun-azal itxiko prozeduraren bidez.

- 2021eko uztailaren 23ko Kontratazio Mahaiaren akta, zeinean erabaki baitzen 1. eta 2. loteak behin-behinean esleitzea Embalajes Miguel Martínez, S.L. enpresari, eta 3. lotea, berriz, Maderas García Varona, S.L. enpresari.

- Sesta helbururako jarritako epean ez zela proposamenik aurkeztu.

Kontuan izanik enpresek aurkeztu dituztela baldintza administratiboen pleguaren 10. puntuan eskatzen diren agiriak,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Aipatutako 1. oihan lotea behin betiko esleitzea Embalajes Miguel Martínez, S.L. enpresari, 13.888,98 eurotan, gehi BEZa.

2. Aipatutako 2. oihan lotea behin betiko esleitzea Embalajes Miguel Martínez, S.L. enpresari, 4.500,00 eurotan, gehi BEZa.

3. Aipatutako 3. oihan lotea behin betiko esleitzea Maderas García Varona, S.L. enpresari, 28.556,00 eurotan, gehi BEZa.

4. Enpresa adjudikaziodunei jakinaraztea baldintza ekonomiko-administratiboen

pleguko 5. eta 11. puntuek ezartzen dituzten betebeharrak konplitu behar dituztela: ordainketaren bermea eta ordainketa. Esleipen hau agiri hauen mende dago: Udalak onetsitako baldintza ekonomiko-administratiboen plegua eta Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren Baso eta Ehiza Zerbitzuaren baldintza tekniko partikularrak.

5. Erabaki hau jakinaraztea enpresa adjudikaziodunei eta Baso eta Ehiza Zerbitzuari.

Estibaliz Pinacho bilerara sartu egin da.

3. UR ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN 35. ARTIKULUAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik:

- Ur zerbitzua arautzen duen ordenantzaren 35. artikulua aldatzeko espedientea (goi-hornidurako uraren sarea). Bertan jasotzen da aldaketa-proposamena.

- Idazkariak 2021eko irailaren 9an egindako txostena.

- Gai baten alderdi partzialen arauketa izanik, egin gabe utz daitekeela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 133.1 artikulua arautzen duen aurretiko kontsulta publikoa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. eta 326. artikuluek eta 39/2015 Legeko 133.2 artikulua xedatzen dutenarekin bat eginik,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Hasiera batez onestea ur zerbitzua arautzen duen ordenantzaren 35. artikulua aldaketa.

2. Espedientea jendaurrean jartzea 30 egunez, aldezturik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki oholean iragarkia jarrita, herritarrek eta bidezko interesa dutenek hura aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak eta oharrik egin ahal dituzten.

3. Udal webgunean argitaratzea aldaketaren testua 30 egunez, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko.

4. Ohartaraztea ez bada erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten, hasierako onespena hau behin betikoa bilakatuko dela eta aldaketaren testua NAOn argitaratuko dela.

Alkateak proposatuta, aztertu beharreko puntuen hurrenkera aldatzea adostu da, 5. arekin jarraituz, eta 4.a utziko da Julen Errandonea bileran sartzen denean aztertzeko.

5. LEGIA KARRIKAN SARBIDE MUGATUKO EREMUA EZARTZEA.

Alkateak eta Esteban Aguirrek gaia azaldu ondoren, honako erabaki hau hartu da:

Ikusita:

- 2020ko uztailaren 30eko 168. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirela Berako mugikortasun eta trafikoari buruzko udal Ordenantzaren behin betiko onarpena eta testu osoa.

- Ordenantza horren 11.6 artikulua ondoko hau ezartzen duela: Berako Udalak, segurtasuna bermatzeko, oinezkoen mugikortasuna hobetzeko edo bertze xede baterako, sarbide mugatuko eremuak ezartzen ahal ditu, ibilgailuekin zirkulatzea eta aparkatzea aruntik edo hein batean murrizteko aukera ematen dutenak; horretarako, eremu horretan zirkulatzeko baldintza zehatzak ezarri beharko ditu.

- Legia karrika, Alzateko sarreratik, sarbide kontrolatuko eremu gisa ezartzeko beharra antzeman dela, segurtasuna bermatzeko eta oinezkoen mugikortasuna hobetzeko arrazoiak direla medio. Hala, oztopo-zutoin mekaniko bat jarriko da eta baimendutako ibilgailuak urrutiko kontrolaren bidez sartu ahal izango dira.

Azaldutakoa oinarri hartuta, eta Berako mugikortasun eta trafikoari buruzko udal Ordenantzak ezarritakoarekin bat etorritik,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Legia karrika, Alzateko sarreratik, sarbide mugatuko eremu gisa ezartzea, ordenantzaren arabera baimendutako ibilgailuak soilik sartu ahal izateko.

2. Sarrera kontrolaren hasiera data ezartzea: 2021eko urriaren 4a.

3. Erabaki hau argitaratzea iragarki oholean eta udal webgunean eta Bando bidez jakitera ematea.

6. 2021/8 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA. APARTEKO KREDITUA (EURI-UREN KOLEKTOREA LUZATZEA KAXERNAGAINAN; BIRKARGA ELEKTRIKOKO PUNTUA). HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak beharrezkotzat jotzen duela finantzen aldetik jasagarriak diren zenbait inbertsio egitea, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren seigarren xedapen gehigarriko programataldeetakoak.

- Martxoaren 18ko 68/2021 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2020ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak 2021eko irailaren 8an egindako txostenak adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, ezohiko kreditua, gastu-partida

hauetarako:

1-1690-60900. Birkarga puntua. 15.000,00 €.
1-1601-60902. Euri-uren kolektorea luzatzea Kaxernagainan. 50.000,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 65.000,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 65.000,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Hasierako onespina ematea 2021/8 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespinen erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu behar du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespinari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

7. 2021/9 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA. KREDITU-GEHIGARRIA (BIZI-LERROAK JARTZEA DEPOSITUETAN; ARGITERIA PUBLIKO JASANGARRIA; UDAKO GARBIKETAK ETA BASOBERRITZEAK). HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak hainbat inbertsio egiteko asmoa duela.

- Martxoaren 18ko 68/2021 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2020ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzailtzak 2021eko irailaren 9an egindako txostenak adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, kreditu-gehigarria, inbertsioak egin ahal izateko. Aipatzen du ondoko hauek direla gehigarria behar duten gastu-partidak:

1-1612-62200. Bizi-lerroak jartzea deposituetan. 4.390,80 €.
1-1650-60900. Argiteria publiko jasangarria. 8.712,00 €.

1-4121-69201. Mendi garbiketak. 4.629,39 €.
1-4121-69205. Basoberritzeak. 33.801,71 €.
Zenbatekoa, guztira: 51.533,90 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 51.533,90 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Hasierako onespena ematea 2021/9 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (kreditu-gehigarria).

2. Jendurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespeneren erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenerari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

Julen Errandonea bilerara sartu egin da eta 4. puntuarekin jarraitu da.

4. TOKIKO MERKATARITZA-SOZIEKATE BAT SORTZEA, %100EKO UDAL KAPITALA IZANGO DUENA, BERAKO KIROL INSTALAZIOEN ZERBITZUA ZUZENEAN KUDEATZEKO.

Alkateak eta Julen Errandoneak gaia aurkeztu ondoren, honako erabaki hau hartu da:

Berako Udala hausnarketa batean murgilduta dago zerbitzu publiko jakin batzuk emateko modua aldatzeko aukerei buruz. Horietako bat herriko kirol instalazioena da, gaur egun Servicios de Actividades Físicas Urdibera, S.L. enpresak kudeatzen duena, eta laster amaituko den kontratua duena.

Gaur egungo egoera ekonomikoa eta esperientzia batzuk baliagarriak izan dira udal zerbitzuen kudeaketa errazteko, haien errendimendua hobetzeko eta, azken batean, Berako bizilagunei, ahal den neurrian, zerbitzu horiek eskuratzeko eta/edo gozatzeko aukera hobetzeko mekanismoak ezartzera bideratutako zenbait erabaki hartzeko.

Horregatik, eta helburu hori lortzeko, instalazio horiek kudeatzeko kapital publikoko merkataritza-sozietate bat sortzeko aukera eztabaidatua izanik, tokiko merkataritza-sozietate bat sortzeko espedientea hasi da, %100eko udal kapitala izango duena, Berako kirol instalazioen zerbitzua zuzenean kudeatzeko.

Azaldutakoa oinarri hartuta, eta idazkariaren txostena ikusita,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Kapital publikoko merkataritza-sozietate bat sortzeko aukera onartzea eta sozietate hori sortzeko justifikazio memoria bat egitea.

2. Azterketak egiteko batzordea izendatzea. Batzorde hori Aitor Elexpuru Egaña alkateak, Julen Errandonea Martin eta José Antonio Oyarzabal zinegotziek, María Dolores Oyarzabal Zubieta eta Miguel José Belarra Tellechea udal kontu-hartzaile eta idazkariak eta Markos Erro Martinez abokatuak osatuko dute.

3. Erabaki hau jakinaraztea aipatutako batzordekideei.

8. LANKIDETZA HITZARMENA NASUVINSAREKIN, ERAIKITAKO INGURUNEETAN ENERGIA BERRONERATZEKO PROIEKTU BAT ABIAN JARTZEKO.

Alkateak azaldu du hitzarmenaren xedea dela, laburbilduz, administrazioen arteko lankidetzaren goreneko esparru bat ezartzea, bizitegi parke zehat baten energia berroneratzeko proiektuetan dinamizazio eta laguntza lanak egin ahal izateko. Hitzarmen horrek bi helburu ditu:

- Jarduera koordinatuak abian jartzen laguntzea, helburu hauek lortzeko: bizitegi eraikinen birgaitze energetikoa; instalazio termikoak hobetzea, eraginkortasun handiko instalazio alternatiboak sustatuz; eraikinetan energia berriztagarriak gehitzea; erabilera publikoko espazioa hobetzea eta egokitzea.

- Arautzea NASUVINSak laguntza teknikoko zerbitzuan parte hartzeko eta zerbitzua emateko baldintzak, zein Berako Udalak parte hartzeko baldintzak.

Gaia eztabaidatu ondoren,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. NASUVINSarekin sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmenaren testua onartzea, eraikitako inguruneetan energia berroneratzeko proiektu bat abian jartzea xede, eta alkateari ematea agiria sinatzeko ahalmena.

2. Erabaki hau jakinaraztea NASUVINSari.

9. PRESOEN URRUNTZEARI ETA SALBUESPENEZKO ESPETXE POLITIKARI DAGOKION ERAKUNDE ADIERAZPENA.

Alkateak aurkeztu ondoren, **aho batez** ontesi da erakunde adierazpen hau:

“Garai berri baten aurrean aurkitzen gara, espetxe politikan aldaketak ematen hasiak dira urruntze politikarekin amaitze bidean, baita graduen progresioari dagokionean ere. Madrildik hegoalderako espetxeetan jada ez da euskal presorik geratzen, baina oraindik

%33 besterik ez dago EAE eta Nafarroako espetxeetan.

Guzti horietatik, egun 29 euskal preso daude erroldatuak Nafarroan eta horietatik 4 baino ez daude Iruñeko espetxean. Guztira, 28 bigarren graduak aurkitzen dira eta bakarria baino ez dago hirugarren graduak. Guztiek zailtasunak eta oztopoak dituzte legeak dion bezala haien etxerako bidea garatu ahal izateko (gradu progresioa, baimenak, hirugarren graduak, baldintzapeko askatasuna, ...).

Horren guztiaren ondorioz, Berako Udalaren osoko bilkurak honako hau erabaki du:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

1. Udal honek adierazten du ez dagoela ados urruntze espetxe politikarekin. Alde horretatik, ETAre indarkeriaren behin betiko etenak irekitako garai berriaren barruan, uste du espetxe-politika berri bat behar dela, hain zuzen ere presoak zigorrak gizarte- eta familia-erroak dituen lekutik urrun betetzea saihesten duen politika bat. Hortaz, Nafarroan erroldatuta dauden 29 euskal presoak Iruñeko espetxera lekualdatzeko eskatzen dugu.

2. Honekin batera, legeak jasotzen duen moduan, graduen progresiorako aukera ahalbidetzea eskatzen du Udalak, euskal presoek dagokien etxerako ibilbidea garatu dezaten.

3. Udalbatza honek bat egiten du Sare Herritarrak irailaren 29tik urriaren 2ra egingo den *Ibilian-ibilian, etxerako bidean* ekimenarekin.

4. Udalbatza honek bertan parte hartzera gonbidatzen ditu herritarrak.

5. Udalak onartutako adierazpen-mozio hau publikoki jakinaraziko du.

6. Onartutako adierazpen-mozioa Sare Herritarrari jakinaraztea: nafarroa@sare.eus".

José Antonio Oyarzabal bileratik atera da.

10. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B23/2021etik B26/2021 arte.

- Ebazpenak: 213/2021 zenbakiko Ebazpenetik (2021/07/28) 267/2021 zenbakiko Ebazpenera arte (2021/09/10).

Gai zerrendatik kanpo, presazkoa dela aho batez aitortu ostean, legeak eskatutako gehiengo osoa bete izanik, honako gai hauek eztabaidatu dira:

MARÍA ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO ANDREAK UDAL HONETAKO ZINEGOTZI KARGUARI EGINDAKO UKOA.

Ikusirik:

- Udal honetako zinegotzi karguari uko egiteko idazkia, María Aranzazu Zubieta Ochoteco andreak sinatua eta Sarrera Erregistroan aurkeztua 2021eko irailaren 10ean, 2231 zenbakiarekin.

- Zubieta andrea 2019ko ekainaren 15ean jabetu zela zinegotzi karguaz, 2019ko maiatzaren 26an egindako toki hauteskundeen ondoren.

- Euskal Herria Bildu hautagai-zerrendan kargu hutsa betetzera deitutako 4 pertsonen idatziz aurkeztu dutela hori betetzeko proposatuak izateari uko egitea.

Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 9.4 artikuluan eta Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko 5/1985 Lege Organikoaren 182. artikuluan ezarritakoa betez,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Udaleko zinegotzi karguari uko egiteko María Aranzazu Zubieta Ochoteco andreak aurkeztutako idatziaren berri izatea.

2. Hauteskunde Batzorde Zentralari bidaltzea erabaki honen ziurtagiria, Zubieta andreak uko egiteko idatziaren kopiarekin batera, bai eta hutsik dagoen kargua betetzera hautagai-zerrendan deitutako 4 pertsonen aurkeztutako idazkien kopiarekin ere.

JOSU IRATZOKI AGIRRE ZINEGOTZIAK EH BILDUKO TALDE POLITIKOA UZTEA.

Ikusirik Josu Iratzoki Agirrek aurkeztutako idazkia (2270 zenbakiko sarrera erregistroa, 2021eko irailaren 15ekoa), zeinean jakinarazten baitu Euskal Herria Bildu talde politikoa uzten duela, zinegotzi kargua mantenduz.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 73.3 artikuluan ezarritakoa betez, Udalbatzak **aho batez ERABAKITZEN DU:** ezagutuztat ematea eta aurrerantzean atxiki gabeko zinegotzitzat hartzea.

11. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:50ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.